Merkatari eta Ostalari Elkarteko zuzendaritza taldea::

"Ermua Zabalik ahaztezina izan dadila nahi dugu"

Ermua Zabalik ekimenaren bigarren edizioa burutuko du ekainaren 16an Ermuko Merkatari eta Ostalari elkarteak. Aurten sorpresaz josia egongo dela diote antolatzaileek. Izan ere, otsailean hasi ziren egitasmoa prestatzen.

- Zer da Gaua Zabalik?

Jai bat da, Ermua eta bere merkataritza sustatzeko eta ezagutzera emateko. Dendak gauean irekitzean datza, baina horrez gain, hainbat sorpresa topa ditzakegu Gaua Zabaliken

- Noiz izango da?

Ekainaren 16an. Iluntzean hasiko da txupinazo batekin eta hortik aurrera ekintza desberdinak egongo dira: 10.30etatik aurrera dendak zabalik, haurrentzako hainbat ekintza (puzgarriak, koltxonetak), kontzertuak, eskalestrix-a, kaleko antzerkia... ez da egongo aspertzeko astirik!

- Zenbat dendek hartzen dute parte?

Berrogei denda inguruk hartuko dute parte baina horiez gain, elkarteko tabernariak gurekin izango dira Gaua Zabaliken. Dendetan egongo diren eskaintzez gain tabernetako hainbat eskaintza bereziz gozatu ahal izango dute ermuarrek.

- Aurreko edizioaren zein balorazio egin zenuten?

Arrakasta handia izan zuen! Espero genuen baino jende gehiago hurbildu zen guregana. Aurten ere horrela izatea espero dugu. Balorazioa ez dugu salmenten arabera egiten. Merkatalgunea ezagutzera ematea eta herria girotzea direlako gure helburu nagusiak. Hala ere, jende asko animatu zen herrian erostera.

- Berrikuntzarik egongo da iaztik hona?

Arrakasta ikusita formatua mantenduko da, baina iazko balorazioa egin eta gero konturatu ginen gazte askok parte hartu zutela. Horregatik, aurten hainbat ekintza txikiei zuzenduta egongo dira. Horrez gain, ermuarren parte-hartzea sustatuko dugu, baita lortu ere. Sutegi antzerki taldea denda eta kaleetan barrena izango dugu antzezten eta Rock & Road musika taldeak ere kontzertu bat eskainiko du San Pelaion.

- Zenbat denbora behar izan duzue hau guztia prestatzeko?

Otsailean ekin genion lanari merkatari elkarteko kideok egindako asanbladarekin. Ordutik hona buru belarri aritu gara lanean Ermuko biztanleei ahalik eta eskaintza erakargarriena eskaintzeko. Oraindik lanean dihardugu, programako hainbat gauza ixtear daudelako. Gaua Zabalik ahaztezina izan dadila nahi dugu!

- Zuentzat, Merkatari eta Ostalarien Elkarteko lehendakari moduan lehenengo aldia izan da. Nolakoa izan da esperientzia?

Esperientzia oso positiboa izan da, baina garai hauetan alderdi ekonomikoari aurre egitea izan da erronka handiena. Hala ere, ideiez eta gogoz indartsu gabiltza eta horrek zailtasun guztiak gainditzen ditu.

- Amaitzeko, animatu Ermuarrak Ermua Zabaliken parte hartzera:

Dendak irekitzeaz gain, eskaintza kultural polita egingo dugu ekainaren 16an. Gainera guregana hurbiltzen diren bezeroek zozketetan parte hartzeko aukera eta beste hainbat sorpresa izango dituzte!

Ane Saénz

O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura
mimitos
Zapatak, pijamak, lentzeria, aulkiak, sehaskak, tronak... behar duten guztia!
Eta gainera 'Hello Kitty'-ren artikulu mordoa!
Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxa. 943 17 04 14

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak
UDAL EUSKALTEGIA
Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25